

## Tolosaldea garatzen

### PROBA PSIKOTEKNIKOAREN BALORAZIOAREN, NORTASUN-ANALISIAREN ETA ELKARRIZKETAREN BALORAZIOAREN ETA PROZESUA GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO IRAGARKIA

*Hautaketa prozesuko **Proba Psikotekniko eta gaitasunezkoak eta Nortasun Analisia eta elkarrizketa** (oinarrietako 6-4 eta 6-5 fasea) baloratu eta emaitzak onartzeko bilera ospatu da Tolosaldea Garatzen, S.A.n, kontabilitate-teknikari plaza bat lan kontratadun langile finko batekin hornitzeko hautaketa prozesua burutzeko prozesuaren barruan.*

Hautaketa Batzordeko kideak:

- Leire Otaegi Larrarte (Lehendakaria)
- Lierni Olano Goikoetxea (Idazkaria)
- Jon Zubeldia Zurutuza
- Garbiñe Mendizabal Ormazabal
- Aimar Arzelus Telleria

Tolosako Apattaerreka industriguneko Lehiberri Zentroan elkartu dira 2025eko otsailaren 17an goizeko 11:00tan eta honako aktan jasotzen dira bertan landutako edukiak.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak 2024ko irailaren 16an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, lanpostu bat lan kontratadun langile finko bihurtzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarriak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (195. Zenbakia, urriaren 9koa) Tolosaldea Garatzen, S.A.ko honako plazarako:

- Kontabilitate teknikaria lanaldi osoan.

Hautaketa prozesu horietan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako izangaien behin-betiko zerrenda onetsi zen, honela osatuta:


- o Iraitz Beobide Guridi
- o Ane Gibelalde Eraso
- o Nerea Goya Oiarbide
- o Elisabeth Machado Iparraguirre

2024ko abenduaren 20an burututako Proba teoriko-praktikoko emaitzak honakoak izan ziren:

HAUTAGAIA	1 ATALA 1 PROBA	1 ATALA 2 PROBA	2 ATALA	GUZTIRA	EMAITZA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	7,34	6,36	9,00	22,70	GAINDITUA
GOYA OIARBIDE, Nerea	5,34	2,50	8,25	16,09	GAINDITUA
BEOBIDE GURIDI, Iraitz	0	0	0	0	EZ GAINDITUA
GIBELALDE ERASO, Ane	0	0	0	0	EZ GAINDITUA

Proba teoriko-praktikoko emaitzak Tolosaldea Garatzeneko web orrian urtarrilaren 15ean argitaratu ziren, eta ezarritako 3 lan eguneko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, emaitzak behin betiko bihurtu ziren automatikoki.

Hautaketa prozesuko oinarrietan aurre ikusitako 6 puntuko 2) ataleko Euskara Proba burutu beharrik ez da izan, prozesuan onartutako izangai guztiek egiaztatu dutelako Euskararen C1 maila.



## Tolosaldea garatzen

2025eko urtarrilaren 21eko bileran Hautaketa Batzordeak oinarrietako 6 puntuko 3) atalean adierazitakoaren arabera, hautatze batzordeak Hautaketa-prozesuan aurreko faseak gainditu dituzten hautagaiek adierazi eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak baloratu zituen:.

HAUTAGAIA	LAN ESPERIENTZIA	PRESTAKUNTZ OSAGARRIA	EUSKARA C2 MAILA	GUZTIRA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	25	4	0	29
GOYA OIARBIDE, Nerea	25	0	0	25

Merezimenduen faseko emaitzak Tolosaldea Garatzeneko web orrian urtarrilaren 22an argitaratu ziren, eta ezarritako 3 lan eguneko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, emaitzak behin betiko bihurtu ziren automatikoki.

Oinarrietan adierazitakoaren arabera, azken bi faseetarako deialdia luzatu zitzairen hautagaiei otsailaren 10ean fase horietako probak burutu zitzaizten:

- 4 fasea: Proba psikoteknikoak eta gaitasun probak.
- 5 fasea: Nortasunaren analisia eta elkarrizketa. Fase hau INGROUUP giza baliabideetan espezializatuta dagoen aholkularitzak bideratu eta baloratu du.

Honakoak izan dira 4 eta 5 faseetarako proposatutako emaitzak:

HAUTAGAIA	4 FASEA Proba psikoteknikoa	5 FASEA Nortasun-analisia eta elkarrizketa
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	7,4	18,17
GOYA OIARBIDE, Nerea	4,4	22,73


Hori dela eta, Hautaketa Batzordeak

### EBATZI DU

**Lehen.** 4 eta 5 faseak gainditzeko gutxienezko puntuazioa bateratzea, eta ondorioz, bi proben artean jokoan gehienez 40 puntu daudela kontuan izanik, gainditzeko gutxienez 24 puntu lortu behar izatea.

**Bigarrena.** Hautaketa prozesuko oinarrietako 6 puntuko 4) eta 5) ataletan aurre ikusitako Proba psikoteknikoetako eta Nortasun-analisia eta elkarrizketako emaitzak onartzea:

HAUTAGAIA	4 FASEA Proba psikoteknikoa	5 FASEA Nortasun- analisia eta elkarrizketa	GUZTIRA	EMAITZA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	7,4	18,17	25,57	GAINDITUA
GOYA OIARBIDE, Nerea	4,4	22,73	27,13	GAINDITUA



## Tolosaldea garatzen

**Hirugarrena.** Hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrenda onartzea.

HAUTAGAIA	1 FASEA Proba teoriko praktikoa	3 FASEA Merezimend uak	4 FASEA Proba psikotekniko a	5 FASEA Nortasun- analisi eta elkarrizketa	GUZTIRA
MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth	22,70	29	7,4	18,17	77,27
GOYA OIARBIDE, Nerea	16,09	25	4,4	22,73	68,22

**Laugarrena.** Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluari proposatzea, lanaldi osoko Kontabilitate Teknikari lanposturako hautaketa prozesu honetan puntuaketa altuena jaso duen hautagaiari, Elisabeth Machado Iparraguirreri alegia, kontratu mugagabe finkoa eskaintzeko.

Behin-behineko emaitza hauen aurka interesdunek erreklamazioak jarri ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean, sozietatearen web korporatiboan ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, hau da, epea 2025eko otsailaren 20an amaituko da.

Erreklamazioak eta zuzenketak aurrez aurre aurkeztu beharko dira Tolosaldea Garatzen, S.A.ko bulegoetan (Lehiberri Zentroa, Apattaerreketa Industriegunea, 20400 Tolosa).

Erreklamaziorik egiten ez bada, **Proba Psikotekniko eta Gaitasunezkoak eta Nortasun-Analisisa eta Elkarrizketa** faseetako emaitza, **Hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrenda** eta **Administrazio kontseiluarentzat izendapen proposamena** behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik badago, Hautaketa Batzordeak onartu edo baztertuko ditu arrazoiak emanez, eta berriro argitaratuko dira.

Tolosa, 2025eko otsailaren 17a.

**Hautaketa Batzordea**